




# Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala  
Tercer Sector Social de Euskadi



2024ko EAEko  
hauteskundeetarako  
Sareen Sarearen  
proposamenak

*Euskadi solidarioagoa eta  
inklusiboagoa eraikiz*

[www.sareensarea.eus](http://www.sareensarea.eus)  
[info@sareensarea.eu](mailto:info@sareensarea.eu)  
Tel. 946 569 230  
Iparragirre kalea, 9  
Bilbo 48009



Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialak proposamenen zerrenda bat aurkeztu die Euskadiko alderdi politikoei, Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) erreferentzia gisa hartuta, eredu sozial parekide eta integratzaileago baterako aurrerapausoak emateko; arlo guztietan babes soziala, irisgarritasun unibertsala eta pertsona guztientzako diseinua bermatze aldera, haurtzarotik hasi eta helduarora arte, eta arlo hauek sustatze aldera: dibertsitatearekiko errespetua, bizikidetzeta eta gizarteratzea, herritarren zerbitzura jarritako ekonomia sozial eta solidarioa, gizartea eraldatzeko hezkuntza, nazioarteko lankidetzeta eta gizarite-ekimena.

## **AURKEZPENA**

Datozen hauteskunde autonomikoetara aurkeztu diren hautagai politikoak hautesleriarentzako hauteskunde-proposamenak amaitzen ari dira, Euskadiko gobernua osatzeko.

Datozen lau urteak erabakigarriak izango dira ingurumeneko, gizariteko eta ekonomiako erronka globalei erantzuteko, eta tokiko aldaketa eraldatzaileak ere beharrezkoak dira. Euskadik konpromisoa du Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) eta Agenda 2030ekin. Erakundeek, eragile sozialek -baita Hirugarren Sektore Sozialak ere- eta gizarite osoak.

Agenda 2030eko helburuak eta xedeak integratuta daude eta ezin dira bereizi. Gainera, hiru dimentsiotan uztartzen dute garapen jasangarria: ekonomia, gizaritea eta ingurumena. Sareen Sarean badakigu pertsonen eta planetaren zaintza bereizezinak direla, eta eraldaketarako edozein urrats eraginkorra izateko jasangarritasunean oinarritutako proposamen ekonomikoa egin behar dela.

Erronka horiek guztiak jorratzeko gizarite osoa eta, zehazki, antolatutako gizarite zibila inplikatu beharra dago. Beharrezkoa da boluntariotzak irudikatzen duen eta Euskadiko hirugarren sektorearen erakunde eta sareetan antolatzen den elkartasuna eta parte-hartze soziala sustatzea. Beharrezkoa da kode zibila indartzea -erakunde publikoen eta hirugarren sektore sozialaren arteko kooperazioa eta lankidetzeta-, erakunde sozialek egunerokoan eragina duten erabaki politikoetan parte har dezaten.

Halaber, beharrezkoa da gobernuak konpromiso handia izatea, eta jardun guztia barne hartzea, ikuspegi horiek txertatzen direla bermatzeko eta politiketan ikuspegi koherentea izateko; politika publikoek planetaren mugak errespetatzen dituztela, giza eskubide guztiak bete eta bermatzen dituztela eta Euskadi barruan eta kanpoan dauden desberdintasunekin amaitzera bideratuta daudela ziurtatzeko.

Alde horretatik, datozen hauteskundeetara aurkeztuko diren alderdi politikoei eskatzen diegu eztabaidatzeko eta SAREEN SAREAK egindako proposamenen dekalogoak kontuan hartzeko.

Dokumentu honetan aipatzen diren ekimen eta ekintza guztiak gauzatzeko kontuan hartuko dira honako hauek: genero-ikuspegia; belaunaldiartekotasuna; dibertsitatearen balioa eta herritarren bizikidetzarako eta gizarteratzerako helburuen arabera kudeatzeko beharra; gizaritean ekintza boluntarioa sustatzea; eta, jakina, generoaren, desgaitasunaren, gaixotasunaren, arrazaren edo etniaren, adinaren edo orientazioaren eta sexu-identitatearen araberrako diskriminaziorik eza.



## 2024KO HAUTESKUNDE AUTONOMIKOETARAKO PROPOSAMENAK

### 1-EUSKADIKO ESKUBIDE EKONOMIKOAK ETA SOZIALAK INDARTZEA ETA FINKATZEA.

- ✓ **Euskadiko Elkarrizketa Zibileko mahaiak etorkizuneko Zaintzen Aldeko Euskal Itunari dagokionez egindako hitzarmenaren garapenarekin eta zehaztapenarekin aurrera egiteko beharrezkoak diren ekimenak edo lege- eta araudi-aldaketak onartzea.**
  - Laguntzaren eta zaintzaren ereduan egiturazko aldaketa egitea, autonomia pertsonalaren sustapena oinarri izan dezan, pertsona bakoitzaren eskubideak eta bizi-proiektua erdigunean jartzeko bizitzako etapa guztietan.
  - Zaintza-eredu berria eraikitzea, erantzukizun publiko eta komunitarioan oinarrituta. Komunitateko arreta indartzea, eta, aldi berean, egoitzetako arreta mantendu eta eraldatzea. Era berean, Euskadiko zaintza-estrategia Zaintzen Aldeko Mundu Aliantzarekin, Europako Zaintzen Estrategiarekin eta nazioarteko erakundeen arau eta aginduekin lerrotzea.
  - Familiako zaintzaren pisua eta zaintza instituzionala berronkatzeko eredu baterantz joatea, lidergo, erantzukizun publikoa eta beste sektore batzuekiko lankidetzaren oinarri hartuta, batez ere, gizarte-ekimenaren sektorearekiko.
  - Zaintzen sektorean baldintza egokiak sustatzeko ekarpena egiten duten neurriak indartzea, eta pertsonarik zaugarrienen zaintza-lanei merezi duten garrantzia aitortzea.
  - Interes Orokorreko Gizarte-Zerbitzuen bereizgarri diren unibertsaltasun, elkartasun, aurrekontu-efizientzia eta egokitzapen (kalitatea) printzipioei erantzun behar die ereduak, eta aurrerapausoak eman behar dira ereduaren aplikazioan eta ebaluazioan, berdintasuna eta parekidetasuna bermatzeko EAE barruko bizilekua edozein izanik ere.
- ✓ **Enpleguaren 2023ko abenduaren 21eko 15/2023 Legea garatzea, pertsona guztiek enplegu duina, inklusiboa eta kalitatezkoa izateko duten eskubidea sustatzeko, arreta berezia jarriz lan-merkatuak sarbide zailagoa duten horiengan. Kontziliazioa eta erantzunkidetasuna sustatzeko neurriak artikulatzea.**
- ✓ **Kontziliaziorako eta mendekotasunarekiko arretarako politikak garatzea, giza baliabide eta finantzaketa gehiago bideratuz, zaintzekin lotura duten eskubideen sarbide unibertsala eta doakoa bermatzeko.**
- ✓ **Irisgarritasun unibertsalaren arloko lege-aginduak behar bezala betetzea.** Zerbitzu guztietara eta espazio publikoetara (kaleak, plazak, garraioa, eraikinak, osasuna, hezkuntza, aisialdia...) baldintza-berdintasunean iristeko (fisikoki, sentsorialki eta kognitiboki) estrategia ezartzeko konpromisoa.
- ✓ Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Hitzarmenean (NBE) aitortuta dagoen **bitzita independentearen ereduaren araudia sustatzea.** Euskadiko Elkarrizketa Zibileko Mahaiak "Euskadin mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako bitzita independenterako ereduaren oinarriak finkatzeko egindako diagnostikoa" dokumentuaren bidez adostu da eredu hori.



- ✓ **Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialak funtsezko rola du eta izan behar du pertsonen eskubideak aitortzeko eta modu eraginkorrean gauzatzeko garaian**, parte-hartze soziala, sentsibilizazioa, behar berriak hautematea eta berrikuntza sustatuz. Gainera, Hirugarren Sektore Sozialak erantzukizun publikorako zerbitzuen hornikuntzan parte hartzen du, balio erantsia emanez.
- ✓ **Arrakala digitala murrizteko politika publikoak** ezartzea. Egungo ingurune teknologikora eta esfera sozial guztietan gertatzen ari diren aldaketei egokitzeko beharrezkoak diren oinarriko baliabideak eskaintzea.  

Digitalizaziorako azpiegiturak zabaltzeko eta biztanleria osoarentzako (bereziki adinekoentzako) alfabetizazio digitalerako gaitasunen prestakuntza sustatzeko oztopo gehien dituzten eremuak identifikatzea, irisgarritasuna eta baliabideen eskuragarritasuna kontuan hartuta, arrakala digitalari buruz hitz egitean teknologia elementu gako gisa eskuratzeko.
- ✓ **Administrazio on baterako eskubidean aurrera egitea**, eta tramiteak soilik elektronikoak izan ez daitezen bermatzea, eta, hala ezarrita dagoen kasuetan, herritarrentzako aholkularitza- eta laguntza-puntuak izatea.
- ✓ **Kontratazio publikoan klausula sozialak eta ingurumenekoak txerta ditzaten sustatzea**, eta gizarte-bazterkeria arriskuan dauden pertsonen eta desgaitasuna duten pertsonen enplegua babesteko neurri espezifikoak ezartzea administrazio publikoen ondasunen eta/edo zerbitzuen kontrataziorako pleguetan.
- ✓ **Familiei Laguntzeko lege berri bat egitea**, 2008koa (Familiei Laguntzeko 13/2008 Legea) ordezkatzeko, eta familia-politikan aurreratua dauden Europar Batasuneko herrialdeekin bat egiteko.
  - **EAEko Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko V. Plana** egin eta sustatzea.
  - Familiako politiken esparruan **familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzko 154/2012 eta 32/2015 dekretuak aplikatzea**.
- ✓ Eusko Jaurlaritzak **berriki onartutako Haur eta Nerabeen Legea erabat garatzea**, haur eta nerabeak eskubide osoko subjektutzat hartzeko paradigma zeharka ezarriz politika publikoetan, eta Hirugarren Sektore Sozialarekin kontaktzea gobernantzarako.
  - **Haur Bermearen Euskal Estrategia sustatzea**, Europako Haur Bermea erreferentziatzat hartuta, haurren pobrezia- eta bazterkeria-zikloa apurtzeko.
  - **EAEko Haurren I. Plana egitea**
- ✓ **Haur eta nerabeen aurkako edozein indarkeria motaren aurkako borroka** jorratzea, haien garapen librea eta erabatekoa bermatuz eta babes integralerako neurriak ezarriz. Neurri horien barruan sartuko dira hautemateko, arretarako eta osatzeko neurriez gain, indarkeriarekin amaitzeko sentsibilizaziorako eta prebentziorako neurriak, interes publikoa eta soziala duen lehentasuna baita.
- ✓ **Adinekoen eskubideak babesteko eta sustatzeko legedia bultzatzea**, pertsona horientzako berme espezifikoak ezartzeko, eta gutxienez arlo hauek kontuan hartuz: osasuna, etxebizitza, babes ekonomiko eta juridikoa, parte-hartzea, erabakitze askatasuna, hezkuntza, kultura, aisialdia eta zaintzak. Bankuko kudeaketetarako eta administraziorako irisgarritasuna bermatzea.



## 2-DISKRIMINAZIO MOTA ORORI AURRE EGITEA

- ✓ Eusko Legebiltzarrean **Tratu berdintasunari eta Diskriminazio Ezari buruzko Euskal Legea** onartzea.
- ✓ **Dibertsitatearen kudeaketa positiborako eta gizarteratzea sustatzeko bizikidetarako politikak garatzea.** Elkartasunean, erantzunkidetasunean, pluralismoan, giza eskubideetan eta berdintasunean oinarritzen den eta sexuagatiko, sexu-orientaziogatiko, adinagatiko, arrazagatiko, desgaitasunagatiko, buruko gaixotasunagatiko edo familia-osaeragatiko diskriminazio mota oro arbuiatzen duen bizikidetzakultura sustatzea.
- ✓ **Gorroto-diskurtsoren edozein adierazpeni aurre egiteko neurriak** ezartzea.

## 3-POBREZIAREN AURKAKO ETA GIZARTE-BAZTERKERIAREN PREBENTZIORAKO POLITIKAK INDARTZEA.

- ✓ **Pobreziari, bazterkeriari eta desberdintasunei aurre egitea ikuspegi global eta integraletik,** errealitate horien ondorioetan ez ezik, egiturazko arazoietan ere esku hartuz.
- ✓ **Arlo ekonomikoan, zergen arloan eta lan-arloan ezarritako neurri guztiek inpaktu sozial positiboa dutela,** aurrerakoak eta sozialki birbanatzaileak direla eta Euskadin dauden desberdintasunen maila murrizten laguntzen dutela ziurtatzea.
- ✓ **Bidezko fiskalitatea sustatzeko zerga-erreforma.** Zerga-sistemak gizarte-politiken estaldura eta inpaktua handitzeko, ekonomiaren trantsizio ekologikoaren prozesuan laguntzeko eta desberdintasunak murrizteko baliabideak sortzen direla bermatu behar du. Halaber, modu eraginkorrean jardun behar du iruzurraren, zerga-ihesaren eta zergak ordaintzea saihestearen aurka, bai Euskadin, bai kanpoan.
- ✓ **Pobreziaren, Bazterkeriaren eta Desberdintasun Sozialen aurkako ituna sinatzea,** pobrezia-eta bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen eta haur-pobreziaren tasa murrizteko, guraso bakarreko familien pobrezia- eta tasa murrizteko eta 2030erako desberdintasunen indizea murrizteko helburuarekin.
- ✓ Pobreziari aurre egitea, kontrol-mekanismoak ezarriz, funtsezko zerbitzu publikoetako operadoreek (elektrizitatea, gasa, ura, telefonoa) diru-iturri baxuak dituzten familientzako ezinezkoak diren tarifak ezar ez ditzaten, eta bazterkeria-arriskurik handiena duten familientzako lagunak emanez.

## 4-ETXEBIZITZARAKO ESKUBIDEA BERMATZEKO ARAU ESPARRUA ETA POLITIKAK SUSTATZEA

- ✓ **Etxebizitzari buruzko 2015eko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen garapena sustatzea,** Euskadiko gizarteak etxebizitza duina, egokia eta irisgarria izateko duen eskubidea bermatzeko.

Etxebizitza duin bat izatea, pilaketak, irisgarritasun falta eta pobrezia energetikoa saihestuz, eta etxebizitzaren bizigarritasuna, segurtasuna eta osasun-egoera bermatzea (Haur eta Nerabeen Legearen 59. artikulua).



- ✓ Administrazio publikoak **etxebizitzaren parkea birgaitzeko eta mantentzeko eta lehentasun gisa alokairu sozialeko etxebizitzak sustatzeko** egindako ahaleginak handitzea, lurzoru publikoaren erreserbaren bermearekin.
- ✓ Konpromiso sendoa hartzea **etxebizitza-bazterkeria egoerak eta arriskuak prebenitzeko eta hautemateko, eta etxegabeen egoerarekin eta infraetxeekin amaitzeko.**
- ✓ Tresna eraginkorrak eskaintzea moldagarritasuna, onargarritasuna, eskuragarritasuna eta irisgarritasuna bermatzeko, eta, hala, etxebizitza duin eta egokia izateko giza eskubidea bermatzeko, desgaitasuna eta/edo mugikortasun-urritasuna duten pertsonena barne.
- ✓ Beharrezkoak diren lege-erreformak sustatzea eta **etxebizitza-erakinetan irisgarritasun unibertsalerako jarduketak bermatzeko** beharrezkoak diren konpentsazio-neurriak ezartzea, bereziki igogailuen instalazioari dagokionez, pertsona guztiek baldintza berdinak izan ditzaten irisgarritasunari dagokionez.

## **5-Osasunerako eskubidea bermatzea, baliabide soziosanitarioak handitzea eta buru-osasuneko politikak sustatzea.**

- ✓ Orain inoiz baino hobeto dakigu zein den kalitatezko eta prebentziorako hornitutako osasun-sistema publiko batean inbertitzeak duen balioa. **Osasun-sistemaren estaldura eta irisgarritasun unibertsala bermatzea**, berdintasuna bermatuz arretan, kolektiborik zaugarrienen kasuan bereziki, eta, une hauetan, lehen arreta indartuz.
- ✓ Arreta espezializaturako sarbide unibertsala eta doakoa bermatzea, **gaixotasun kronikoen errehabilitaziorako**, autonomia pertsonala sustatzeko eta mendekotasun-egoerak prebenitzeko mekanismoa baita.
- ✓ **Euskadin Buruko Osasuneko Estrategia garatzea** giza eskubideen eta prebentzioaren ikuspegitik, ikuspegi hori aplikatzeko baliabideak eta aurrekontuaren hornikuntza handituz.
- ✓ **Psikologiako eta psikiatriako profesionalek herritar guztiei arreta espezializatua eskaintzeko sarbide unibertsala eta doakoa bermatzea.**
- ✓ **Arlo sozialaren eta osasun-arloaren arteko koordinazioa indartzea**, eta Hirugarren Sektorre Sozialarekiko lankidetzaren sustatzea buruko osasun-arazoentzako arretarako eta prebentziorako laguntza psikosoziala eskaintzeko.

2021-2024 aldirako Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Lehentasun Estrategikoan eta hurrengo estrategietan aipatzen diren **kolektibo soziosanitarioen** arretarako neurriak sustatzen jarraitzea.

- ✓ Mendekotasunen arretarako sarea indartzea, prebentzio-zerbitzuen, tratamenduaren, kalteak murriztearen eta drogen kontsumoarekin edo substantziarik gabeko beste mendekotasun batzuekin arazoak dituzten pertsonak, haien familiak eta haien komunitateak gizarteratzeko zerbitzuen bidez. Arreta-sare horretan adin guztietako pertsonak sartzea.
- ✓ **Nahi ez den bakardadeari aurre egitea adin eta egoera guztietan, modu goiztiarrean, prebentiboan eta belaunaldien artean**, zeharkako neurriekin erantzun koordinatuak emanez eta pertsonen bizi-kalitatean inpaktu handiagoa eta ondorio ekonomiko handiagoak dituzten alderdiei lehentasuna emanez.



- ✓ **Hirugarren Sektorre Sozialaren lankidetzaz sustatzea osasun-arloan eta osasun-politikak zabaltzea.**
- ✓ Osakidetzako erantzukizun publikoaren zerbitzu guztietarako sarbidean (bai laguntza-zerbitzuak, bai farmazeutikoak) berdintasun-printzipioa betetzen dela etengabe ebaluatzeko irizpideak ezartzea Euskadi osoan, herritarren bizilekua, adina edo baldintza sozioekonomikoak edozein izanik ere, baita politika guztiek osasunean duten inpaktua neurtzeko ere.
- ✓ **Osasun-sistemaren digitalizazio-estrategia herritar guztien beharretara egokitzea, eta, zehazki, adineko pertsonen eta desgaitasuna duten pertsonen beharretara.**

## 6-GARAPENERAKO LANKIDETZARAKO POLITIKAK INDARTZEA

- ✓ Onartu berri den Lankidetzarako eta Elkartasunerako 2024ko otsailaren 15eko 3/2024 Legea bete dadin sustatzea. Nazioarteko lankidetzaz da gizakiok ditugun erronka globalei, giza eskubide unibertsalak bermatzeko beharri eta herrialdeen arteko desberdintasunen hazkundeak dakarren erronkari emandako erantzun solidarioa.
- ✓ **Eraldaketa Sozialerako heziketa edo biztanleria osoarentzako heziketa artikulatzea** hezkuntza-sistemarekin eta beste politika batzuekin, herritartasun kritikoa, solidarioa, tolerantzia, ahaldundua, antolatua eta prestatuagoa sustatzeko sinergiak eta estrategiak sortuz, mundu interkonektatu honetako giza garapen jasangarriaren erronkei aurre egiteko.
- ✓ **Aurrekontuaren % 0,7 bermatzea garapenerako lankidetzaren politika publikoak indartzeko,** legean ezartzen den moduan. EHSSeko erakundeekin eta sareekin hitz egitea eta aurrekontu-aurrerapen hori bideratzeko eta kanalizatzeko bide-orria adostea.
- ✓ EHSSa eta, zehazki irabazi asmorik gabeko **GGKEak, lankidetzarako politika publikoaren protagonistak izan behar direla aintzat hartzea.** Halaber, beharrezkoa da lankidetzarako eragileen errealitatea indartzea.

## 7-GENERO BERDINTASUNA SUSTATZEA

- ✓ **Politika publikoetan genero-berdintasunaren ikuspegia erabat aplikatzen dela bermatzea.**
- ✓ **Genero-berdintasuna eta emakume eta neska guztien ahaldundutzea maila guztietan sustatzeko politika publikoak onartu eta indartzea,** emakumeen erabateko parte-hartze eraginkorra ziurtatzeko eta bermatzeko, bai bizitza politikoan, bai ekonomikoan eta bai publikoan.
- ✓ **Erakunde Publikoetan emakumeen zeharkakotasuna eta ahaldundutzea aplikatzeko beharra aintzat hartzea politikak ezartzeko garaian.** Garapenerako ekintza guztien xedea izan behar da genero-berdintasuna lortzea eta emakume eta gizonentzako duten inpaktu desberdina kontuan hartzea. Gaitasunak eta jarrerak sortzea, genero-ekitate bilatzea erakundearen jardura ororekin bat etor dadin.
- ✓ **Erantzukizun partekatua eta zaintzen erantzunkidetasuna sustatzea,** arlo horretan sustatzeko ekintzen inpaktu erreala baloratuz.



- ✓ Desgaitasun fisikoa, sentsoriala edo adimenduna duten, buruko osasun-arazoak dituzten eta jatorriagatiko edo beste arrazoi bategatiko diskriminazioa jasaten duten emakumeek jasan beharreko **askotariko diskriminazioen aurka borrokatzea.**
- ✓ **Soldata-arrakalarekin amaitzea**, lan-merkatuaren diskriminazioa eta desberdintasuna minimizatzeke.
- ✓ **Genero-indarkeriaren aurka borroka egiteko politika publikoak diseinatzea, Hirugarren Sektore Sozialaren ezagutza eta esperientzia kontuan hartuta**, eta ekintza boluntarioak indarkeria mota horren aurkako borrokan duen inplikazioarengatik eta parte-hartze herritarrarengatik gauzatzen duen rola nabarmentzea.
- ✓ **Indarkeria matxistaren arretarako zerbitzuak buruko osasun-arazoak edo desgaitasuna dituzten, edo bazterkeria-egoeran edo beste egoera batzuetan dauden emakumeen beharretara egokitzea**, emakume guztiak izan dezaten haien egoerara egokitutako arreta eta babes egokia jasotzeko eskubidea, haien egoera edozein dela ere. Horretarako, beharrezkoa da prestakuntza, baliabideak egokitzea eta emakume horienganako diskriminaziorik ez izatea.
- ✓ **Hezkuntzaren arloan indarkeria matxistaren aurkako eta berdintasun errearen balioetan hezi ahal izateko politika publikoak sustatzea**, egiturazko desberdintasunekin amaitzeko eta etorkizuneko belaunaldiak gizonen eta emakumeen arteko errespetuan eta berdintasunean hazteko.
- ✓ **Bizitzako arlo guztietan emakumeek baldintza-berdintasunean parte hartzeko aukera izan dezaten bermatzea, diskriminazio motaren bat jasan duten emakumeen kasuan batez ere**; sexuaren eta ugalketaren arloko osasunerako sarbidea izatea; eta emakume horienganako indarkeria mota guztiekin amaitzea, maiz desgaitasun-ondorioak baititu.
- ✓ **Familiako eta laneko bizitza kontziliatzeko programa eta jarduketa errazak sustatzea**, familiako kargak dituzten eta gizarte-bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden emakumeak lan-merkatura erabat sar daitezten.
- ✓ Elkarrizketa zibilaren esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoan **onartu berri den Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategian ageri diren neurrien garapenean Hirugarren Sektore Sozialak parte hartzen duela bermatzea.**

## 8- Hezkuntza unibertsalerako eskubidea bermatzea

- ✓ Hezkuntza inklusiboaren, parekidearen, berritzailearen eta kalitatezkoaren eskubidea bermatzea, beharrezko baliabideak eta laguntzak hornituz, eta laguntza-beharrak dituzten pertsona guztien gizarteratze errealerako eta eraginkorrerako irisgarritasun-baldintza unibertsalak bermatuz. Pertsona autonomoak eta espiritu kritikoa dutenak formatzea aukera-berdintasunean.
- ✓ Hezkuntza-sistema publiko eta doakoa bermatzea pertsona bakoitzak kalitatezko hezkuntzarako sarbidea izan dezan, behar dituen laguntza guztiekin, bere jatorria edo egoera edozein dela ere.
- ✓ Bereizketa-modu guztien aurka egiteko Hezkuntza Inklusiborako Euskal Plana ezartzea, hornikuntza ekonomiko egokiarekin, eskola-porrota gelditzeko eta hezkuntza-sistemaren barruan bereizketa eta bazterkeria pairatzen duten kolektiboak integratzeko, bereziki.





Halaber, desgaitasuna edo buruko gaixotasuna duten ikasle guztiak hezkuntza-sistema inklusibora sartzen direla bermatzeko.

- ✓ Hezkuntza funtsezko eskubidea da eta gizarte bidezkoago eta parekideagoa lortzeko zutabea. Horregatik, **eskolatze orekatua eskatzen dugu, pertsonarik zaurgarrienen beharretan oinarritua eta edozein bereizketa mota behin betiko desagerraraziko duena.**
- ✓ Erantzunkidetasuna da Sareen Sarean defendatzen dugun ereduari eusten dion beste zutabeetako bat. Horregatik, garrantzitsua da **hezkuntza-proiektu komunitarioak sustatzea, gizarteko eragile guztiak parte hartzeko.**
- ✓ **Hirugarren Sektore Sozialak garatzen dituen hezkuntza-proiektu berritzaileak sustatzea hezkuntzako aisialdian, hezkuntza arautuan zein gizarteratzean eta lan-munduratzean, arrakalak murrizteko** eta pertsona bakoitzak bere potentzial gorena lortzeko tresnak dituela bermatzeko. Besteak beste, familia zaurgarrientzako laguntza-programak; eraldaketa sozialerako lankidetzak eta hezkuntza-programak; irisgarritasun teknologikoa hobetzeko eta arrakala digitalaren aurka egiteko ekimenak; eta buruko edo ongizate emozionaleko osasun-arazoak dituzten haurtzaroari, nerabezaroari eta gazteriarri buruzko ikerketa-proiektuak.
- ✓ **Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza sustatzea**, hau da, derrigorrezko hezkuntza-etapatik harago.
- ✓ Irakasleek dibertsitatearen, irisgarritasunaren, bazterkeriaren, hainbat arrazoiengatik diskriminazioaren, kontsumo arduratsuaren, ekintzailaketa sozial eta solidarioaren, finantza etikoen, merkataritza bidezkoaren eta abarren arloko **balioetan eta metodologietan oinarritutako prestakuntza egokia dutela bermatzea.**
- ✓ **Babeserako eta ongizaterako koordinatzailearen** figura garatzea hezkuntza-arloan.

## **9-ELKARRIZKETA ZIBILA, GOBERNANTZA, PARTE HARTZEA ETA BOLUNTARIOTZA SUSTATZEA**

- ✓ **Hirugarren Sektore Sozialak elkarrizketa zibilerako hizlari legitimo gisa duen rola indartzea erakundeetatik.** Erakunde publikoen eta Hirugarren Sektore Sozialeko sareen eta erakundeen arteko elkarrizketa zibil erreal eta eraginkorra, eta lankidetzak sustatzea politika publikoen diseinuan, jarraipenean eta ebaluazioan.  
  
*EHSSren 2016ko maiatzaren 12ko 6/ 2016 Legeak honakoa jasotzen du: “sektore publikoak, eta zehazkiago, gobernuaren ekintzak, berriz asmatu behar dute beren burua, eta gizarte zibilarekiko harreman-modu berriak hartu behar dituzte kontuan, aurrera egin ahal izateko administrazio irekiko eredu batean, eta, hortik hara, gobernantzako eta partizipazio sozialeko eredu batean, demokrazian sakonduz. Horri dagokionez, hirugarren sektore sozialeko erakundeak sektore publikoarekin elkarlanean aritzen dira eta aritu behar dute politika sozial publikoen gaineko erabakiak hartzeko lanean; era berean, gizarte- eta garapen-ereduari buruzko eztabaida sozialean ere parte hartu behar dute”.*
- ✓ **Tokiko, aldundiko eta erkidegoko organoetan haurrek parte hartzeko kanal egonkorak indartzea eta finkatzea.** Haurren elkartzeko moduei buruzko gutxieneko esparru osagarria eskaintzen duen araudi espezifikoa garatzea, eta hezkuntzako administrazioetatik ikasleek parte hartzeko aukerak eskaintzea.



- ✓ Boluntarioen eta hirugarren sektore sozialeko erakundeen eta sareen sustapenaren bidez **elkartasun-politikak eta parte-hartze sozialerakoak garatzea.**
- ✓ **2025-2029 aldirako Boluntariotzaren Euskal Estrategiaren garapena sustatzea.**
- ✓ Hainbat mailatako eta hainbat eragileren arteko **governantza intentsifikatzea, auzo zaugarrietako berrurbanizazio jasangarriaren proiektu aktiboetan pilotatzeren bat eginez, tokiko politiken koherentziaren bitartez espazio inklusiboak sortzeko.**
- ✓ **Boluntariotza-ekintzaren ikusgarritasun handiagoa sustatzea.**
- ✓ **Boluntariotzari eta parte-hartzeari buruzko ikerketa sustatzea.**
- ✓ **Ekintza boluntarioaren eta parte-hartze sozialerako ekintzaren balioaren gainean sentsibilizatzea hezkuntza-arloan.**
- ✓ **Herritarrak hezteko eta garapen jasangarrirako ekintzak sustatzeko balioa duen elementu gisa bultzatzea boluntariotza-ekintza.**

## **10-HIRUGARREN SEKTOREKO JASANGARRITASUNA INDARTZEA ETA BABESTEA.**

- ✓ **Lankidetzak publiko-sozialerako eredu egonkorra definitzea**, herrialdearen finantzaketa-eredu publikoa, gardena, irizpide homogeneousak dituen eta hiru herrialdeen artean partekatua izateko, eta negoziazio partikularren edo erabaki publikoen finantzaketa-zerbitzuen mende ez egoteko.
- ✓ **Egungo finantzaketa-tresnen funtzionamendua hobetzeko beharra dago**, batez ere, diruz lagundu daitekeen ereduarena. Finantzaketa-tresnarik ahulena da eta egun dagoen sistemarekin burokratizatuegiak daude justifikazio-sistemak. Horrek lan administratiboaren gainkarga dakar eta lan hori ordezkatu egin daiteke justifikazio-sistema azkarrago batzuekin, betiere arlo sozialarentzako desegokia izango den estatuko egungo dirulaguntzen Legearen erreforma osorik egiten ez bada. Sistema arinagoak ezartzeko kostu-sistema sinplifikatuak ezar daitezke, kudeaketa-gastuak eta karga administratiboa murrizteko.
- ✓ **Botere publikoen kontratu-jarduketa inspiratu behar duten printzipio eta irizpide sozialak sustatzea**, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen arabera, erakunde sozialek zerbitzuak eskaintzerakoan ematen duten balioa eta alderdi sozialak eta sortzen duten itzulketak soziala kontuan hartuta.
- ✓ **Hirugarren Sektorre Soziala finantzatzeko esparru egonkorra, nahikoa, bermatua, aurreikus daitekeena, sendoa eta aitortutako balio soziala duena ezartzea**, Euskadiko sare mota eta erakunde sozial guztientzat.
- ✓ **Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren Sustapen Estrategiako jarduketak garatzeko finantzaketarako gutxieneko jarraitu eta jasangarri bat bermatzea urtean, eta hala badagokio hainbat urtetan.**
- ✓ **Gutxieneko jarraitu eta jasangarria bermatzea urtean, Elkarrizketa Zibilean parte hartzen duten Hirugarren Sektorre Sozialeko sareek beren misioa gauzatzeko eta mantendu ahal izateko.** Urtero eguneratzen den mekanismo automatiko bat ezartzea.
- ✓ **Euskadiko zergadunek "gizarte-onurako beste xede batzuetara" bideratzen duten PFEZren zerga-esleipena argitaratzea urtero**, lurralde historiko bakoitzaren arabera. Esleipen hori



Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeei bideratuta dago, programa sozialak egin ahal izateko.<sup>1</sup>

- ✓ *“Gizarte-onurako beste xede batzuk”* finantzatzera bideratzen den PFEZren kuota osoaren ehunekoa argitaratzea, Euskadiko hiru lurraldeetan.
- ✓ **Bide horretatik bildutako funtsak urtero nora bideratzen diren argitaratzea.**
- ✓ **Estatuko Ogasunean zergadunek “Gizarte-onurako beste xede batzuetara” bideratzen duten zerga-esleipenarekin gertatzen den moduan, funts horien kargura dauden dirulaguntzen banaketa-eredua bermatzea, zati bikoitzeko sistema bat oinarri hartuta.** Euskadiren kasuan, Foru Aldundiek ehuneko bat kudeatuko dute eta Eusko Jaurlaritzak gainerako ehunekoa.
- ✓ **Enpresek haien borondatez Sozietate Zergen % 0,7 gizarte-erakundeek garatzen dituzten programetara bideratu ahal izatea,** Estatuko Aurrekontuen Legeak 2019tik baimentzen duen moduan. Horrek enpresen eta irabazi asmorik gabeko erakundeen arteko lankidetzaren sustatzen du, haien arteko harremanak lankidetzaren sozial, egonkor eta jasangarriaren oinarritu daitezela.
- ✓ **Gizarte Zerbitzuen Sistemaren erantzukizun publikorako zerbitzuentzako Kontzertu Sozialerako Dekretua ezartzen dela bermatzea, eta orientazio koherentea izatea hiru lurralde historikoetan.**
- ✓ **Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeekin egiten diren gizarte-zerbitzuen arloko kontratuen eta kontzertu publikoen desindexazioa malgutzat.** Inflazio-maila altua dela eta, defizitarioak dira erakundeentzat.
- ✓ **Foru-ogasunekin lankidetzaren aritzea, Hirugarren Sektore Sozialaren finantzaketaren araudia hobetu dadin sustatzeko, emaileen eta kolaboratzaileen kopurua eta dohaintzaren emandako kopuruak handituz, gizarte zibileko erakundeen parte-hartzea eta ehundura indartuz eta mezenasgoaren kultura handiagoa sustatuz.**
- ✓ **Autonomia Erkidegoak jasotzen dituen Europako funtsak, Next Generation funtsak eta beste finantzaketa-tresna batzuk, ahal dela, gizarteratzerako politketara, estrategietara eta ekintza berritzailetara bideratzea,** eta Hirugarren Sektore Sozialak parte hartzea horien diseinua, kudeaketa, administrazioa eta ebaluazioa erabakitzearen prozesuetan.
- ✓ **Aurreikusitako gabeko krisien aurrean malgutasuna eta erresilientzia sustatzen duten gizarte-erakundeentzako erreserba-funtsak eta erreskate-funtsak sustatzea.**
- ✓ **Hirugarren Sektore Sozialaren jardueraren inpaktua neurtu dadin sustatzea, baliabide gehiago bideratuz eta Hirugarren Sektore Sozialaren inpaktua ebaluatzeko eta neurtzeko mekanismoak sustatuz,** baita baliabideak modu efizienteagoan banatuz eta Hirugarren Sektore Sozialeko kontuak emateko eta gardentasunerako prozesuak azkartuz ere.

## **11-. GARAPEN JASANGARRIAREKIN ETA AGENDA 2030EN HELBURUEKIN KOHERENTEAK DIREN POLITIKAK**

<sup>1</sup>*“Gizarte onurako xedeetarako” hautatuz gero, kuota osoaren ehuneko bat gizarte-ekintzako eta garapenari laguntzen dioten gobernuz kanpoko erakundeentzat (GKE) izango da, gizarte programak egiteko”.* Bizkaiko ogasunaren webgunea.



- ✓ **Eusko Jaurlaritzaren politika guztiak koherenteak izatea giza garapena sustatzeko eta desberdintasunen aurkako borroka jorratzeko, ikuspegi kausal, integral, eraldatzaile eta ingurumenarekiko jasangarritik**, Nazio Batuen Agenda 2030en jasotzen den moduan.

Politiken koherentziari indar handiagoa ematea Administrazio Publikoaren hainbat mailatan. Betiere justiziaren, genero-berdintasunaren, giza eskubideen eta ingurumenaren defentsaren parametroen pean, eta pertsonak eta haien duintasuna ekintzaren erdigunean kokatuz.

Ez dugu nahi agendaren xedea dagoeneko egiten ari den horren piezak berrordenatzea soilik izatea, pobrezia, desberdintasun eta ingurumena suntsitzea eragiten duten arrazoiak zalantzan jarri gabe. Agenda eraldatzailea nahi dugu, eredu ekonomikoa aldatzeko premia larria mahai gainean jarriko duena, eta egiteko eta gobernatzeko moduan benetako aldaketa sakonak ekarriko dituena.

- ✓ **Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJH) eta Agenda 2030en helburuak eta adierazleak betetzen direla bermatzea. Ekonomikoki bideragarriak eta jasangarriak diren konpromiso eraldatzaileen bidez pertsonen zaintza eta planetaren zaintza uztartzen dituzten helburu egingarriak.** Helburu horien inpaktuak egiaztagarriak izan behar du, eta izaera esperimentalak izan arren, denboran zehar irauteko, onartuak izateko eta estrukturalki ezartzeko bokazioak izan behar dute.

Tokiko ikuspegia kontuan hartuz, arazo globalei soluzioak emateko helburuak izan behar dira, nazioartera transferitu daitezkeenak edo, gure agendan txertatuz, beste leku batzuetako pertsonen zaintzaren eta planetaren ongizatearen arloan aldaketa positiboak sortuko dituztenak.

**Azken 4 urteotako adierazleen sistemaren eta emaitzen bilakaera aztertzea eta aurkeztea**, jasangarritasun sozialaren, ekologikoaren eta ekonomikoen ardatzari lotutako politika publikoen garapenean hobekuntza arloak eta defizitak identifikatu ahal izateko aldizkako ebaluazio-prozesuak garatzeko beharra adierazten duten jarduketa-planeko helburuen arabera.

- ✓ **Arriskuen eta planetaren, pertsonen eta ekonomiaren gaineko inpaktuen prebentzio-kultura sustatzea eta plano guztietako erabaki politikoetan koherentzia bermatzeko neurriak ezartzeko aurrerapausoak ematea:** udalerrietan, lurraldeetan, erkidegoan, estatuan, Europan eta nazioartean. Garapen jasangarrirako helburuekin eta giza eskubideen eta ingurumenaren babesaren nazioarteko neurriekin bat etorri behar du kultura horrek.
- ✓ **Agenda 2030en eta Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJH) barruan sartu behar dira eredu soziala aldatzeko politika eta ekimen autonomiko guztiak.** Alde horretatik, Eusko Jaurlaritzak sustatzen dituen politikak adierazteko, koordinatzeko eta zuzentzeko Estrategia bat egin behar da.
- ✓ *2030 Agenda Euskadi Kontratu Sozial baterako* adierazpena sinatuz, **GJHen aldeko Euskal Aliantzan ezarritako konpromisoak sustatzea.**
- ✓ **Gizartearen gobernantzarako eta parte-hartze aktiborako bide guztiak sustatzea, gizartea ahalduntzea eta bizitzaren aldeko itun sozial handi horren parte eginaraztea.** Ezinbestekoa da behetik gorako bide-orri horiek elkarrekin sortzea eta eraikitzea.
- ✓ **Aurrekontu autonomikoak Agenda 2030ean printzipio eraldatzaileak ezartzeko aukeratzat hartzea**, GKHeekin bat datorren aurrekontu-esparruaren eta ekintza politikoaren barruan.



- ✓ **Eredu ekonomikoa aldatzea, garapen jasangarrira eta pertsonekin eta garapen sozialarekin konprometitu dauden sektore produktiboetara jotzeko**, egun zaugarritasun-egoeran edo gizarte-bazterkeria arriskuan dagoen eta sistemaren barruan rol aktibo eta produktiboa izateko baldintzetan dagoen biztanleriaren zati adierazgarri batek egin dezakeen balizko ekarpen ekonomikoa, produktiboa eta eraldatzailea nabarmenduz.
- ✓ **Industriako sistema produktiboa eraldatzea, pertsonentzako eta ingurumenerako funtsezkoak eta onuragarriak diren ekonomia-sektoreetara berrorientatuz.**
- ✓ **Ekonomia Sozial eta Solidarioa sustatzea, ekonomia ulertzeko beste modu baten gisan, tokiko garapenean oinarritutako garapen ekonomiko eta sozial eraldatzailea lehenetsiz** eta enplegu solidarioa, inklusiboa eta kalitatezkoa sustatuz.
- ✓ **Kontratazio publiko arduratsua sustatzea, politika publikoak bultzatzeko tresna indartsua baita**, eta, gainera, herritarren eta enpresen arteko adibidea izan daiteke kontsumo kritikoa, kontzientea eta eraldatzailea sustatzeko garaian. Bestalde, adierazi behar da kontratazioa erregulatuz gero, enpresen jarduketak birbideratu daitezkeela kontrataziorako prozedura publikoetan eskatzen diren erantzukizun-irizpideak txertatzeko. Alde horretatik, Kontratazio Publikorako Euskal Funtza sortzea proposatzen dugu.
- ✓ **Atzerrian presentzia duten Euskadiko enpresek konpromiso etikoa hartzea, herrialde txiroetan jarduten dutenek batez ere**, kanpoan egiten duten ekintzek jarduten duten komunitateko ingurumena babesteko eta pertsonen eta komunitatean oparotasuna bermatzeko helburuak bete ditzaten.
- ✓ **Hirugarren sektore soziala erronka demografikoari aurre egiteko politiketan parte har dezan eta lankidetzan aritu dadin sustatzea**, 2030rako Erronka Demografikorako Euskal Estrategiarekin bat eginez. Estrategia horrek nabarmentzen du ezinbestekoa dela eragileen arteko lankidetzeta eta auzolana.

Estrategiaren lau jarduketa-ardatzekin bat etorritik, honakoa eskatzen dugu:

- Gazteen emantzipazioa sustatzea eta familia berriak sortzea.
  - Familiei laguntzea.
  - Adinekoen bizitza autonomoa eta erabatekoa sustatzea.
  - Immigranteen gizarteratzea eta integrazioa.
- ✓ **Inklusio eta irisgarritasun unibertsalerako politika publikoak sustatzea**, pertsonen bizitza autonomoa luzatzea eta pertsona guztientzako aukera-berdintasuna lortzea, dibertsitatearen garrantzia nabarmenduz.
  - ✓ **Garraio publikoaren sistemak indartzea, estaldura handituz eta irisgarritasuna eta doakotasuna sustatuz**, pertsonarik zaugarrienen edo gizarte-bazterkeria arriskuan daudenen sarbidez gain, biztanleria osoarena ere sustatzeko.